

Txistua jaietan

Goizeko bederatzieta jotzea antzinatik datorren ohitura ederra da

Zorionez, Oñatiko herrian ez da jaietan bakarrik jotzen, eta Aberri Egunean hasita azarora arte —abuztuan ez, jakina—, domekero jotzen dute diana. Arratsaldetan ere, urte osoan, dantzaldia egoten da.

Goiz eresian, kale berrian, atzeko kalean eta kale zaharretan zehar egiten da ibilbidea, eta normala da eremu honetatik kanpo bizi direnak ez ohartzea; baina jendea egoten da entzuten, eta, egunen batean, arrazoi bategatik edo besteagatik jo barik geratuz gero, galdetu ere egiten dute domeka horretan zer pasatu den goiz eresia ez jotzeko.

Goiz eresi berezia

Jaietako dianak ez dauka zerikusirik urteko beste domeketa-koekin: kale garbitzaileak, geratu barik, gabeko zikinak garbiketan; gauez kalera irten ez den baten bat lasai-lasai paseatzen; eta, noizbehinka, oraindik etxera joan barik dau den gaupasa egindako batzuk ere topatzen dituzte txistulariek.

Diferentzia handiena Herri egunean eta zezenak tokatzen diren egunetan izaten da. Herri egunean jendea oso goiz irten da kalera, eta, diana hasteko, jende mordoxxkatxoa ikusten da hara eta hona. Zezenak izaten diren egunetan ere, plaza inguruan jende dezente pilaketan da goiz-goizetik.

Bada egun bat goizean jo eta gero ohera joateko parada ematen duena, «eta eskertzen da, baina, gehienetan, eguerdi ingurura arte jotzen aritzen gara, baita arratsaldera arte pare bat egunetan ere», esan diote txistulariek EGUNKARIARI. Izan ere, txistua ez da goizeko



Txistulari Banda, kalejiran, sanmigeletan, aurreko urte batean.

DOINUAK

Txistu doinuak ez dira amaitzen goizeko diana jotakoan

diana jotakoan amaitzen. Gauean parranda gustura egiten da, hurrengo egunean lo egiteko parada dagoela jakinda. Parranda beti egiten baita gustura parrandazalea izanez gero. «Behin parrandara irten-dakoan, ez zara egoten hurren-

go egunean zein ordutan jaiki bihar duzun pentsatzen; hori bai, hurrengo goizean jaikita-koan, orduan bai oroitzen zarelara aurreko gauean egindako parrandarekin», diote txistulariek.

Parranda eta biharamuna

Aurrez ez da jakiten zein izaten den txistua jotzeko egun zailena sanmigeletan; hori gorputzak erabakitzen du. Nahiz gau batean parranda handia egin, eta hurrengo goizean gorputz

HERRI EGUNA


Txistua jotzeko egun politena Herri eguna da, oso giro berezia egoten baita

onarekin jaiki, beti egoten da egunen bat beste guztiak baino gogorragoa. «Hala ere, gau alaiarekin batera, berriz kalera irteten gara».

Bestela, txistua jotzeko egun politena Herri eguna da, txistu-

lariek esan digutenez: «Oso giro berezia egoten da kalean, eta esan liteke, egun horretan, txistua gehiago ere preziatzen dela».

Batzuetan, ez da samurra izaten jotzea inor ez bada entzuten ari, baina hori ez da sarri pasatzen. «Beste batzuetan, nahiz eta inor egon ez, norbera gustura baldin badago, momentu horretan jotzeak ez du larregi inporta izaten; baina beti da askoz pozgarriagoa jendea begira izatea». Zenbat eta gehiago, orduan eta hobeto.



Jai eder batzuk igarotzeko
ZABALDU ATIA EUSKERIARI
jaixari, umoriari...



OÑATIKO UDALA
EUSKARA BATZORDEA